


**BERTSOAK: ELI PAGOLA**  
**DOINUA: DOZENA BAT BERTSO BERRI**



Argi ibil hadi zeren  
irakurle gisa hemen  
hire moduko sasi-jakintsu  
asko xamar zeuden.  
Egun on, Eli, dena den  
galdera ezer baino lehen:  
hik hikaz zerbait badakin baino  
erabiltzen al den?

*Kaixo Pagola, Hiri're!  
Zemuz habil, adiskide?  
lehendabizi hika ta zuka  
ez zeuden bi bide.  
Biak izanik posible  
egin nahi dizkinat nire  
baina burua eta mingaina  
behar ditun libre.*

Mantentzeko hire onra  
epelkeri denak sobra  
lasai, hi ere jarriko haiz ni  
bezain egoskorra.  
Guztia den sailkakorra  
zerk nor egiten haun horra  
batek euskaldun eta besteak  
euskaldun jatorra.

*Nahiz denak ez izan berdin  
ezin den askorik egin  
hire uster a ekarritako  
aditz taularekin.  
Lagun behar huke jakin  
jatorrerako hikak din  
baserritarrez janzteak duen  
adina eragin.*

Poto egiteko tranpan,  
edo ta eduki faltan  
bertsolaria maiz egoten den  
halako atakan,  
bertso/errima arautan  
imaginatu nahi haut han  
hika formik ez ditenekiko  
abantaila daukan.

*Sartuz lau aditz arraro  
gero ta aberatsago  
izango dela nire bertsoa  
sinetsita hago.  
"Dizkiñat"-ka ahoz aho  
hasi ezker akabo  
hasieran bai exotikoa,  
gero bat gehiago.*

Bere bitar politikak  
sortutako polemikak  
ez ditun soilik hizketarako  
aitzaki polit bat  
ta errima dinamikak  
izan ezean taktikak  
hiri zergatik ta zertarako  
balio din hikak?

*Bazeukan zer aldatua  
subjeto eta tratua  
horrexegatik egiten diñat  
aldeko hautua.  
Nahi bezela moldatua  
ta ez fosilizatua  
eskuragarri, geurea eta  
eguneratua. •*